

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun zuzendariaren 4101/2025 Ebazpena, uztailaren 21ekoa. Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzen zaio EELIF Talde Deuda Alternativa FUNTSari (IFZ: V-95-953.196)

Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren bidez, Europako epe luzerako zenbait inbertsio funtsen ezaugarriak zehazten dira zerga ondorioetarako, eta aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru arauetan (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, kooperatiben zerga araubidea) eta Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean. Bada, foru arau horretan ezarri da Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerga tratamendua, bai eta Europako arrisku kapitaleko funtsena eta Europako gizarte ekintzailtzeko funtsena ere, eta Arabako Lurralde Historikoaren zerga antolamenduan sartu ditu Europako funts horien bitartez egindako inbertsioa sustatzeko neurriak (hain zuzen ere, funts horien xedea da jarduera ekonomikoa garatzeko enpresa kapitalizazioko eta berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketa bultzatzea).

Bat etorri Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 80. artikuluan xedatutakoarekin, foru arau horren VI. tituluan V. kapitulu jasotako araubidea aplikagarri izango zaie Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako Epe Luzerako Inbertsio Funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 Erregelamenduan (EB) araututako Europako epe luzerako inbertsio funtsei. Hala ere, foru arau horren 56. artikuluan 4. apartatua ezarritako ehuneko 1eko karga tasa aplikatzeko, honako betekizun hauek ere bete beharko dira:

a) Funtsek bere ondarearen ehuneko 95, gutxienez, inbertitu behar du inbertsiorako balio duten aktiboetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako Epe Luzerako Inbertsio Funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 Erregelamenduak 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Inbertsiogile batek ere ez du izango ehuneko 15etik gorako partaidetza funtsaren ondarean, eduki ditzakeen zuzeneko eta zeharkako partaidetza guztiak kontuan hartuz, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 42. artikuluan xedatutakoaren arabera lotuta dauden pertsona edo entitateenak barne.

Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko inbertitzaile instituzionalen partaidetzak, hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren II. eranskineko I. apartatuko 1., 2. eta 4. zenbakietan definitutakoak. Zuzentarau hori finantza tresnen merkatuei buruzkoa da, eta 2002/92/EE Zuzentaraua eta 2011/61/EB Zuzentaraua aldatzen ditu.

Bestalde, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak zerga pizgarri batzuk ezartzen ditu Europako epe luzeko inbertsio funtsen kategoria jakin batzuetan parte hartzen duten pertsona fisikoentzat, bai eta kreditu erakundeetan irekitako kontuetan diru kopuruak gordailutzen dituztenentzat ere, zenbateko horiek erakundeak epe luzeko inbertsio funts horietan partaidetzak erostera soilik bideratuta badaude.

Bereziki, aipatutako martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 11. artikuluan xedatzen duenaren arabera, jarduera ekonomikoa bultzatzeko Europako funstzat joko dira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 80. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsak, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Haien helburu bakarra izatea hurrengo c) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei euren jarduera ekonomikoak finantzatzeko epe luzerako maileguak ematea. Zilegi izango dute entitate mailegu hartzailearen aktiboko ondasunen gaineko berme erreala ezartzea.

b) Ematen dituzten maileguen zenbateko nominala 500.000,00 eurotik gorakoa izatea.

c) Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 33. artikuluko 1. apartatua ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei ematea maileguak, baldin eta ez badute kotizatzen antolatutako bigarren mailako merkatu batean, edo bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako Epe Luzerako Inbertsio Funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak 11. artikuluko 1. apartatuko b) letrako ii) tartekian aurreikusitako egoeran badaude eta foru arau horren 13. artikuluko 3. apartatuko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

d) Ematen dituzten maileguak itzultzeko gutxieneko epea bost urtekoa eta gehienekoa hamabost urtekoa izatea, eta maileguen ordainketak interes finko bat izatea eta, hala badagokio, interes aldakor bat ere bai, entitatearen jarduera ekonomikoaren garapenaren arabera, edo, entitate mailegu hartzailearen aktiboko ondasunen gaineko berme erreala ezartzen den kasuetan, bermepeko ondasun horiek merkatuan duten balioaren bilakaeraren arabera.

e) Entitate mailegu hartzaileek jasotako finantzaketa jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzeko, dauden beste batzuk zabaldu edo finkatzeko nahiz enplegu egonkorak sortzeko, eta, tamainak, berritasunak nahiz egin behar diren inbertsioen arriskuak eraginda, kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dauzkaten enpresa proiektuak gauzatzeko erabiltzea.

f) Entitate mailegu hartzaileek lehendik duten zorra euren EBITDA halako sei baino handiagoa ez izatea, eta Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 47. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar ez izatea.

g) Funttsaren ondarea elkarren bermerako sozietate batek edo kauzio aseguru batek bermatuta egotea bere zenbatekoaren ehuneko bostean, gutxienez.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako a) eta g) bitarteko letretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte, euren partaideek ekarpena ordaindu eta urtebeteko epean gehienez ere.

Eta martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arau horrek berak 13. artikuluan xedatzen duenez, foru arau horren 11. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta foru arau horren III. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsek jakinarazpena aurkeztu beharko diote zerga administrazioari, haiek merkaturatu baino lehenago, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Zerga Administrazioak, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 11. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero, kasuan kasuko funtsa jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsa dela onartuko du, Ogasun Zuzendaritzaren ebazpen bidez, eta ebazpen hori argitaratuko da, denek jakin dezaten.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 11ko 60/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez garatzen baitira Europako funts batzuen zerga tratamenduaren alderdi batzuk eta berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa

bultzatzeko zerga neurriak, prozedura bat ezarri du jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen izaera aitortzeko, alegia, funtsaren kudeatzaile den entitateak eskaera aurkeztu behar dio Ogasun Zuzendaritzari, honako dokumentazio honekin batera:

a) Komunikazioa aurkezten duen epe luzerako inbertsio funtsaren identifikazioa.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako Epe Luzerako Inbertsio Funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak 5. artikuluko 1. apartatuan xedatzen duenarekin bat etorriz Europako epe luzerako inbertsio funtsen agintari eskudunari aurkeztutako dokumentazioa.

c) Agintari eskudunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako Epe Luzerako Inbertsio Funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak 6. artikuluan aipatzen duen baimena ematea Europako epe luzerako inbertsio funtsa izateko.

d) Europako epe luzerako inbertsio funtsen kudeatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 80. artikuluan 2. apartatuan agintzen dituen betekizunak betetzen direla ziurtatzen duena.

e) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako Epe Luzerako Inbertsio Funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak 23. artikuluan aipatzen duen li-buruxka (behar denean, funtsezko datuen dokumentua ere bai), eta martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta arauz ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Ogasun Zuzendaritzak jarduera ekonomikoaren finantzaketa sustatzeko Europako funtsaren izaera aitortuko dio ebazpen bidez, zeina ALHAOn argitaratuko baita eta jarduera ekonomikoaren finantzaketa sustatzeko Europako epe luzerako inbertsio funtsen izaera aitortu zaien Europako epe luzerako funtsen zerrenda eguneratua sartuko baita. Zerrenda eguneratua nahi duen orok ikusteko moduan dago Arabako Foru Aldundiaren Interneteko orrian.

EELIF Talde Deuda Alternativa (IFZ: V-22-457238) izeneko Europako epe luzerako inbertsio FUNTSA kudeatzen duen entitateak eskaera aurkeztu du Ogasun Zuzendaritzan, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funts aitor dadin, aipatutako arauen arabera.

Ogasun zuzendariak egiaztatu du ezen eskaerari erantsi zaiola Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 11ko 60/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez garatzen baitira Europako funts batzuen zerga tratamenduaren alderdi batzuk eta berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko zerga neurriak, 1. artikuluan eskatutako dokumentazio guztia, eta, dokumentazio hori eta Arabako Foru Aldundian dauden gainerako elementuak kontuan hartuta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 80. artikuluan eta martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 7. artikuluan (Europako epe luzerako zenbait inbertsio funtsen ezaugarriak zehazten dira zerga ondorioetarako, eta aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru arauetan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, kooperatiben zerga araubidea) ezarritako baldintzak betetzen direla. Hala jasota dago zuzendaritzan horrek 2019ko uztailaren 30ean egindako txostenean.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzea EELIF Talde Deuda Alternativa FUNTSari (IFK: V-22-457238).

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortu zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerrenda eguneratuan sartuko da. Zerrenda hori nahi duen orok ikusteko moduan dago Arabako Foru Aldundiaren Interneteko orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 21a

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA